sgae

XXIV PREMIOS max

ARTE ESZENIKOAK

Teatro Arriaga Antzokia | Bilbao

Astelehena, urriak 4 de octubre, lunes | 2021

fundación sgae fundazioa

XXIV PREMIOS MAX DE LAS ARTES ESCÉNICAS
ARTE ESZENIKOEN XXIV. MAX
SARIEN EMANALDIA

Parecía que nuestro mundo, tal y como lo habíamos conocido hasta la llegada de la covid-19 a nuestras vidas, se desmoronaba. El duelo persiste, la tragedia, esa sacudida atroz que durante meses ha amagado con desestabilizar los más insondables cimientos de nuestra sociedad, de nuestra economía, de nuestra cultura, pero también hemos aprendido durante este sinuoso trayecto a salvar obstáculos que jamás hubiéramos imaginado más allá de las ficciones apocalípticas ideadas por algunos de nuestros autores favoritos. Y así, ahora, cuando, aun sin bajar la guardia, ya casi nos hemos acostumbrado a convivir con el virus y despertamos resueltos de esta pesadilla, cuando la vida, que igual no volverá a ser jamás como todavía la recordamos, se despereza y retorna a una (in)cierta y deseada normalidad, es el momento de abrir ventanas de par en par e iluminar estancias, salir a las calles y retomar afectos, ilusiones, costumbres y pasiones, de redescubrirnos y volver a tomarle el pulso a la vida. Convertir la ciudad en un escenario, como ya soñara el genial Max Reinhardt, en el que todas y todos formamos parte de un mismo espectáculo que luce con especial brillo hacia el porvenir. Porque lo mejor, sin duda, está aún por llegar.

Y así las cosas, estamos convencidos de que no hay mejor y más fiel compañera para este esperanzador viaje que la Cultura, sanadora y fértil, que tanto y tan bien nos ha acompañado durante estos meses, y que, a la vez, tanto ha sufrido los embates de la pandemia, con cancelaciones de espectáculos y festivales, cierre de salas teatrales y cinematográficas, o profesionales del sector al borde de un abismo que amenaza con devorarlos sin piedad. Pero es tiempo, decíamos, de festejar ese bien común que es la Cultura, segura y responsable, su espíritu libre y crítico que nos ayuda a avanzar, su reconfortante hálito, esa magia suya que nos provoca emociones, sensaciones y pálpitos insospechados, y que deseamos ya poder recuperar a pleno pulmón sin restricciones ni ataduras. Una esencia que muy especialmente impregna al conjunto de las Artes Escénicas y que es también seña de identidad de unos Premios Max que, sin faltar ni un solo año a su cita, este 2021 llega puntual a su ya XXIV edición.

Y si, recordémoslo, la anterior gala de los Max se anunciaba como la más excepcional de su historia, por llegar marcada por la pandemia y el deseo de recuperar temprano el orden en nuestras vidas, la actual no puede ser más que la de una esperanza sobrevenida y la ineludible certidumbre de que unas y otros despertamos de esta pesadilla con la confianza que proporciona lo aprendido, con el alma revolucionada, y esa sensación incontestable y valiente de que ahora, sí, podremos con todo.

XXIV PREMIOS MAX DE LAS ARTES ESCÉNICAS
ARTE ESZENIKOEN XXIV. MAX SARIEN EMANALDIA

Ese es el espíritu con el que este año encaramos los XXIV Premios Max y que, por supuesto, deseamos compartir tanto con el conjunto de profesionales y aficionados al teatro y la danza, en cualquiera de sus múltiples categorías: dramaturgas, actores, espectadores, taquilleras, iluminadores, coreógrafas, jefas de sala, compositores musicales, gestores culturales, productoras, diseñadores…, como con el resto de la sociedad civil, porque la Cultura y la creación son hoy más necesarios que nunca, en cuanto atesoran el material del que se forjan los sueños e irradian una esperanza, un entusiasmo, que nos han de ayudar a crecer como individuos frente a la adversidad y la pena. Es tiempo de celebrar el talento, la alegría de seguir juntos, de compartir y amar, de aprender a mirar más allá, de trepar al escenario de nuestras vidas y permitir que el teatro guíe nuestros pasos. Nada puede, de esta manera, salir mal.

No queremos despedir estas líneas sin agradecer por su generosa ayuda, confianza y complicidad a todas aquellas personas y entidades, miembros del Comité y del Jurado de los Max, candidatos y finalistas, patrocinadores y demás, sin quienes tan complicado hubiera sido llegar hasta aquí. Empezando por el Ayuntamiento de Bilbao, que una vez más corrobora su querencia por las artes escénicas acogiendo en su Teatro Arriaga, como ya hizo hace justo ahora dos décadas, la XXIV edición de los Premios Max de las Artes Escénicas. También merece una especial dedicatoria el creador y director de escena Calixto Bieito, actual director artístico del Arriaga y Medalla de Oro de la Academia de las Artes Escénicas de España, quien repetirá como director de nuestra gala tras hacerlo en la edición de 2006, en el Barcelona Teatre Musical, y oficiar como entregador un año después, en el Palacio Euskalduna de Bilbao. Y más: el Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música (INAEM), la Corporación RTVE y, de un modo muy querido y personal, la colosal actriz Gemma Cuervo, pionera de la escena a quien el Comité Organizador de los Max ha querido este año reconocer con el Premio de Honor por su inconmensurable amor al teatro, al que ha dedicado toda su vida. Figuras como ella dan sentido a esta profesión. Nosotros sólo podemos celebrar su presencia y, con nuestras esperanzas rumbo a 2022, cuando festejaremos por todo lo alto el 25º aniversario de los Max, brindar por todo lo bueno que está por venir. Que así sea.

Bazirudien covid19a gure bizitzara iritsi arte ezagutu genuen gure mundua, behera zetorrela. Doluak bere horretan dirau, tragediak, astinaldi lazgarri horrek, hilabetetan zehar gure gizartearen, gure ekonomiaren, gure kulturaren oinarririk sakonenak ezegonkortzearekin mehatxatu du, baina ibilbide bihurri horretan gure egile gogokoenetako batzuek asmatutako fikzio apokaliptikoez harago inoiz imajinatuko ez genituzkeen oztopoak gainditzen ere ikasi dugu. Eta orain, arreta jaitsi barik, birusarekin bizitzen ohitu garenean eta amesgaizto honetatik iratzarri garenean, nahiz eta bizitza, agian berriro inoiz ez den gogoratzen dugun bezalakoa izango, oraindik, nagiak astindu eta normaltasun (ez)egiazko eta desiratura itzultzen denean, leihoak parez pare ireki eta gelak argitzeko unea da, kalera irten eta berriro ere maitasuna, ilusioak, ohiturak eta pasioak berreskuratzeko, geure burua berriro aurkitzeko eta bizitzari berriro pultsua hartzeko unea. Hiria eszenatoki bihurtzea, Max Reinhardt bikainak jada amestuko zuen bezala. Bertan, gizaki guztiok, etorkizunari begira distira bereziarekin argituko duen ikuskizun beraren parte izango gara. Onena iristear dagoelako, zalantza barik.

Eta, gauzak horrela, ziur gaude bidaia itxaropentsu honetarako ez dagoela Kultura sendatzaile eta emankorra baino bidelagun hoberik eta leialagorik. Hilabete hauetan zehar hainbeste eta hain ondo lagundu digun, eta, aldi berean, pandemiaren oldarraldiak hainbeste jasan dituen kultura, ikuskizunak eta jaialdiak bertan behera utzita, antzokiak eta zinema-aretoak itxita, edo sektoreko profesionalak kupida barik irensteko mehatxu egiten duen amildegi baten ertzean. Baina, esan dugun bezala, bada Kultura seguru eta arduratsu hori ospatzeko garaia, aurrera egiten laguntzen digun bere espiritu libre eta kritikoa, bere bake lasaigarria, emozioak, sentsazioak eta susmatu gabeko taupadak eragiten dizkigun bere magia. Eta birikak beteta, muga eta lotura barik, berreskuratu gura dugu. Arte Eszenikoen multzoari modu berezian eragiten dion esentzia eta Max Sarien bereizgarria da; izan ere, bere hitzorduari urte bakar batez ere hutsik egin barik, 2021. urte honetan XXIV. ediziora iritsi dira.

XXIV PREMIOS MAX DE LAS ARTES ESCÉNICAS
ARTE ESZENIKOEN XXIV. MAX SARIEN EMANALDIA

Eta, gogora dezagun, Max sarien aurreko gala bere historiako salbuespenezkoena zela iragarri bazen, pandemiak eta berandu baino lehen gure bizitzetan ordena berreskuratzeko nahiak markatutakoa, aurtengoa ezin da gerora sortutako itxaropenarena eta ezinbesteko ziurtasunarena baino izan, alegia, amesgaizto horretatik esnatu egiten garela ikasitakoak ematen duen konfiantza, arima iraulia, eta ezin ukatuzko sentsazio ausarta dakarren edizioa. Oraingoan bai, guztiarekin ahal izango dugu.

Espiritu horrekin ekingo diegu aurten XXIV. Max Sariei, eta, jakina, kategoria guztietako antzerkiaren eta dantzaren profesional eta zale guztiekin partekatu gura dugu: antzerkigileak, aktoreak, ikus-entzuleak, txartel-saltzaileak, argiztatzaileak, koreografoak, areto-buruak, musika-konpositoreak, kultur kudeatzaileak, ekoizleak, diseinatzaileak, etab., eta baita gizarte zibileko gainerako kideekin ere. Izan ere, Kultura eta sorkuntza inoiz baino beharrezkoagoak dira gaur egun, ametsak sortzen dituen materiala biltzen dutelako, eta itxaropena, gogoa zabaltzen dutelako, eta horrek ezbeharren aurrean gizabanako gisa hazten lagundu behar digute. Talentua, elkarrekin jarraitzearen poza, partekatzea eta maitatzea ospatzeko garaia da, harago begiratzen ikastekoa, gure bizitzako agertokira igotzekoa eta antzerkiak gure urratsak gidatzea ahalbidetzekoa. Horrela, ezerk ezin du gaizki atera.

Ez ditugu lerro hauek kaleratu gura euren laguntza, konfiantza eta konplizitateagatik eskerrak eman barik Max Sarien Batzordeko eta Epaimahaiko kide, hautagai eta finalista, babesle eta gainerakoei, horiek barik honaino iristea oso zaila izango zelako. Bilboko Udaletik hasita, beste behin ere berretsi du arte eszenikoekiko zaletasuna, Arte Eszenikoen Max Sarien XXIV. edizioa Arriaga Antzokian hartuz, duela bi hamarkada egin zuen bezala. Aipamen berezia merezi du, halaber, Calixto Bieito sortzaile eta eszena-zuzendari, Arriagako egungo zuzendari artistiko eta Espainiako Arte Eszenikoen Akademiako Urrezko dominak; izan ere, gure galako zuzendari gisa errepikatuko du, 2006ko edizioan, Barcelona Teatre Musicalen, egin zuen bezala, eta urtebete geroago, Bilboko Euskalduna Jauregian, banatzaile gisa aritu eta gero. Eta gehiago: Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala (INAEM), RTVE Korporazioa eta, oso modu maitatuan eta pertsonalean, Gemma Cuervo aktore bikaina, bere bizitza osoan antzerkiari eskaini dion maitasunagatik Max Sarien Batzorde Antolatzaileak aurten Ohorezko Sariarekin saritu gura izan duen eszenaren aitzindaria. Bera bezalako figurek ematen diote esanahia lanbide honi. Guk haien presentzia ospatu besterik ezin dugu egin, eta, Max Sarien 25. urteurrena bikain ospatuko dugun 2022rako bidean ditugun itxaropenekin, topa egingo dugu etorriko diren gauza on guztiengatik. Hala izan dadila.

Antonio Onetti
Presidente de la SGAE
SGAEko presidentea

Juan José Solana
Presidente de la Fundación SGAE
SGAE Fundazioko presidentea

fundación sgae fundazioa

Amaia. Bilboko Guggenheim Museoa
Museo Guggenheim Bilbao

%eko Dtu. 50 % Dto.

ostatu-bonoetan, jardueretan eta pakete turistikoetan!

en bonos de alojamiento, actividades y paquetes turísticos!

Eta **%100**ean bizi
Y vive al **100%**

BILBAO BIZKAIA

BILBAO
BIZKAIA
be basque

Lortu zure bonoa hemen • Consigue aquí tu bono

www.bonoturismobilbaobizkaia.eus

ÍNDICE / AURKIBIDEA

CATEGORÍAS / KATEGORIA

Mejor diseño de vestuario / Jantzien diseinurik onena — 07

Mejor diseño de iluminación / Argi diseinurik onena — 08

Mejor diseño de espacio escénico / Espazio eszenikoaren diseinurik onena — 09

Mejor labor de producción / Produkzio lanik onena — 10

Premio Max aficionado o de carácter social / Afizionatuaren edo izaera sozialeko Max saria — 11

Mejor espectáculo de calle / Kale ikuskizunik onena — 12

Mejor espectáculo revelación / Errebelazio ikuskizunik onena — 13

Premio Max del público / Publikoaren Max saria — 15

Mejor intérprete masculino de danza / Dantza arloko gizonezko interpreterik onena — 17

Mejor intérprete femenina de danza / Dantza arloko emakumezko interpreterik onena — 18

Mejor actor / Gizonezko aktorerik onena — 19

Mejor actriz / Emakumezko aktorerik onena — 20

Mejor dirección de escena / Antzerki zuzendaritzarik onena — 22

Mejor espectáculo para público infantil, juvenil o familiar / Umeentzako, gazteentzako edo familientzako ikuskizunik onena — 23

Mejor espectáculo musical o lírico / Ikuskizun musikal edo liriko onena — 24

Mejor espectáculo de danza / Dantza ikuskizun onena — 25

Mejor espectáculo de teatro / Antzerki ikuskizun onena — 27

Premio Max de honor / Ohorezko Max saria — 29

Mejor autoría revelación / Egiletza errebelazio onena — 31

Mejor composición musical para espectáculo escénico / Ikuskizun eszenikorako musika-konposiziorik onena — 32

Mejor coreografía / Koreografia onena — 33

Mejor adaptación o versión de obra teatral / Antzezlan baten moldaketa edo bertsio onena — 35

Mejor autoría teatral / Antzerki egiletza onena — 36

CRÉDITOS / KREDITUAK — 38

MEJOR DISEÑO DE VESTUARIO
JANTZIEN DISEINURIK ONENA

Deborah Macías | *NISE, LA TRAGEDIA DE INÉS DE CASTRO*

Deborah Macías no es desconocida en la categoría: ya conquistó, también junto a Nao d'Amores, compañía a la que pertenece desde su fundación en 2001, el Premio Max al mejor diseño de vestuario en 2019 por *Comedia Aquilana*. Su forma de entender el vestuario, elegante, sobrio y primitivista al mismo tiempo que estilizado y funcional, al servicio del dinamismo interpretativo que exige la obra, es fundamental para dotar a *NISE, la tragedia de Inés de Castro* de esa dramaturgia compacta y sólida que buscaba Ana Zamora.

Deborah Macías ez da berria kategoria honetan: dagoeneko konkistatu zuen, Nao d'Amores konpainiarekin batera (2001ean sortu zenetik horko kide dena bera), jantzien diseinu onenaren Max saria 2019an, *Comedia aquilana* obrarengatik. Jantziak ulertzeko modu elegante, soil eta primitibista hori eta aldi berean jantziak ulertzeko modu estilizatu eta funtzional hori, obrak behar duen interpretazio-dinamismoaren zerbitzura, funtsezkoa da *NISE, la tragedia de Inés de Castro* obrari dramaturgia trinko eta sendo hori emateko, Ana Zamorak nahi zuen bezala.



Hugo Pérez de la Pica | *POR LOS OJOS DE RAQUEL MELLER*

Director del Teatro Tribueñe de Madrid, Premio Ojo Crítico en 2012 y multifacético y creador incesante como poeta, director, dramaturgo, escenógrafo, figurinista y artista plástico, Hugo Pérez de la Pica despliega todas sus posibilidades escénicas en *Por los ojos de Raquel Meller*. Un montaje que, a través de medio centenar de trajes cuidados al más mínimo detalle (bordados, encajes, flecos, botonaduras) y una escenografía que retrotrae a los cafés del Paral·lel de los años 20, retrata la España del cuplé y la mantilla.

Madrilgo Tribueñe Antzerkiko zuzendaria bera, 2012an Begi Kritikoaren saria irabazia eta alor askotan sortzaile diharduena —dela poeta, dela dramagile, dela eszenografo, dela figuringile eta dela artista plastiko—, Hugo Pérez de la Picak bere posibilitate eszeniko guztiak zabaldu ditu *Por los ojos de Raquel Meller* obran. Haren muntatzean, xehetasun guztiak aintzat hartzen dituzten ehunka trajeren bitartez (brodalanak, parpailak, litsak, botoiak) eta 20ko hamarkadako Paral·leleko kafetegiak gogorarazten dituen eszenografiarekin, kluplearen eta mantelinaren Espainia irudikatzen du.

Foto DAVID RUIZ

Tatiana de Sarabia | *ANDANZAS Y ENTREMESES DE JUAN RANA*

Formada en el clasicismo escénico, Tatiana de Sarabia es una de las figuras que mejor representan la ambivalencia de lo clásico y lo contemporáneo en el mundo del diseño de vestuario para obras de teatro, como demuestran sus múltiples trabajos para Ron Lalá o Yllana (con quienes ya se acercó al Max en 2019 con *The opera locos*). Su trabajo en *Andanzas y Entremeses de Juan Rana* contrapone los ominosos y casi futuristas trajes de la Inquisición con los más vulgares de los comediantes para un elenco de los más compactamente vestidos de su toda su carrera.

Klasizismo eszenikoan trebatu da Tatiana de Sarabia, eta gutxik irudikatzen dute berak bezala klasikoaren eta garaikidearen anbibalentzia hori antzezlanen alorreko jantzien diseinuan; hala erakutsi du Ron Lalárentzat eta Yllanarentzat egin izan dituen lan ugarietan (horiekin dagoeneko 2019an hurbildu zen Max sarietara *The opera locos* lanarekin). *Andanzas y entremeses de Juan Rana* obrak kontrastean jartzen ditu Inkisizioaren janzki zital eta ia futuristak eta komediagileen jantzi arruntagoak; hala, bere ibilbidean inoiz ez bezain modu konpaktuan jantzi ditu antzezleak.

MEJOR DISEÑO DE ILUMINACIÓN
ARGI DISEINURIK ONENA



Jesús Díaz Cortés | *PUÑOS DE HARINA*

Natural de Huelva, Jesús Díaz Cortés se encuentra entre los iluminadores con mayor proyección de nuestro país y firma todos los diseños de iluminación de El Aedo, compañía con la que ha ganado el Premio Lorca 2019 a la Contribución Técnico-Artística por *Otelo en la red* y con la que está avanzando en la gamificación de las artes escénicas. Ahora, con *Puños de harina* (Premio Teatroautor Exprés 2019 de la Fundación SGAE), diseña un entramado lumínico que parte de recrear la iluminación de un combate de boxeo pero que dirige sutilmente al espectador hacia la intimidad de los distintos personajes que se suceden, golpe a golpe, en la obra.

Huelvakoa bera, Jesús Díaz Cortés dago argiztatzailerik onentsuenetakoa gure herrialdean, eta El Aedoren argi diseinu guztien atzean dago. Konpainia horrekin irabazi zuen 2019an Lorca saria, *Otelo en la red* obrako ekarpen tekniko-artistikoagatik, eta horren bitartez ari da aurrera egiten arte eszenikoen gamifikazioan. *Puños de harina* obra honetan (SGAE Fundazioaren 2019ko Teatroautor Expres saria irabazi zuen), boxeo borrokaldi baten argiztapenarekin abiatzen da argien egitura, baina pixkanaka pertsonaia bakoitzaren baitara darama ikuslea eta kolpez kolpe agertuko dira pertsonaia horiek.

Juanjo Llorens | *LA MORT I LA DONZELLA*

Un gigante de la iluminación, miembro fundador de la Academia de las Artes Escénicas y socio de la Asociación de Autores de Iluminación, director técnico y docente, Juanjo Llorens ha conseguido, entre otros reconocimientos a su labor, tres Premios Max (en 2011 por *La función por hacer*, en 2013 por *De ratones y hombres* y en 2019 por *El curioso incidente del perro a media noche*). En *La Mort i la Donzella* epata y conmueve a partes iguales, transiciona con violencia o a paso apenas perceptible, como en un parpadeo que representa el instante que separa la vida y la muerte.

Argiaren arloan erraldoi horietako bat da Juanjo Llorens, Arte Eszenikoen Akademiaren fundatzaileetakoa eta Argiaren Egileen Elkarteko kidea; zuzendari teknikoa eta irakaslea ere bada, eta bere arloan, besteak beste, hiru Max sari irabazia da (2011n, *La función por hacer* lanarengatik, 2013an *De ratones y hombres* lanarengatik eta 2019an *El curioso incidente del perro a media noche* lanarengatik). *La Mort i la Donzella* obrak liluratu bezainbat hunkitu egiten du; bortizki edo ia oharkabean egiten ditu trantsizioak, bizitza eta heriotza bereizten dituen begi kliska batean bezala.

Luis Perdiguero | *EL LAGO*

Después de encargarse de la iluminación del musical *El médico* o de *La Chana, reina del compás* y tras varios trabajos para el CDN, la Compañía Nacional de Teatro Clásico, el Liceu o la Ópera de Detroit, Luis Perdiguero vuelve a colaborar con LaMov en *El lago*, una revisión libre y en los términos de la danza experimental y contemporánea de *El lago de los cisnes* de Chaikovsky. Su trabajo es impactante pero tímido y sirve para conducir la mirada hacia los núcleos y los distintos rangos de la acción corporal.

El médico edo *La Chana, reina del compás* musika obretako argiztapenaz arduratu ondoren, eta CDNrako, Antzerki Klasikoaren Espainiako Konpainiarako, Liceurako eta Detroiteko Operarako zenbait lan egin eta gero, Luis Perdiguerok beste behin kolaboratu du LaMov-ekin *El lago* obran, zeina Txaikovskiren *El lago de los cisnes* obraren berrikuspen libre bat baita dantza esperimental eta garaikidearen bidez landua. Lan zirraragarria eta aldi berean herabea da, eta begirada gorputz ekintzaren nukleoetarantz eta maila desberdinetarantz zuzentzeko balio du.

MEJOR DISEÑO DE ESPACIO ESCÉNICO
ESPAZIO ESZENIKOAREN DISEINURIK ONENA

Alejandro Andújar | *EL BAR QUE SE TRAGÓ A TODOS LOS ESPAÑOLES*

Formado entre Madrid y Múnich, Alejandro Andújar cuenta con una larga lista de éxitos como director de escenografía tanto en teatro como en ópera. En *El bar que se tragó a todos los españoles* saca toda la artillería limitando toda la acción a una barra de bar que se convierte no solo en eje central de la narración y en punto de encuentro de los diferentes personajes, sino en un reflejo mismo de lo que son, de lo que somos.

Madrilen eta Munichen trebatua, Alejandro Andújarrek arrakasta izan duten obren zerrenda luzea du eszenografiako zuzendari arituta bai antzerkian eta bai operan. *El bar que se tragó a todos los españoles* obran artilleria guztia atera du, ekintza guztia taberna bateko barran gertatzen baita. Hura da narrazioaren ardatza eta pertsonaia ugariren topagune; ez hori bakarrik, haien izaera eta geurea bera islaturik gelditzen dira bertan.

Laura Clos 'Closca' | *HISTÒRIA D'UN SENGLAR (O ALGUNA COSA DE RICARD)*

Història d'un senglar (o alguna cosa de Ricard) se compone, a modo de traducción de la versión libre del *Ricardo III* del uruguayo Gabriel Calderón (*Algo de Ricardo*), como una indagación en el ego del intérprete, su ambición y sus inseguridades, y la escenografía de "Closca" lo sintetiza a la perfección con muy poco: un trono casi amortajado compuesto, como el Trono de Hierro de George Martin, por las tramoyas del teatro, las tripas de la profesión escénica. Un espectáculo que confirma a la escenógrafa barcelonesa como uno de los talentos más geniales de su joven generación.

Història d'un senglar (o alguna cosa de Ricard) obra itzulpen moduko bat da, Gabriel Calderón uruguaitarrak *Richard III* obraz egindako bertsio librearena (*Algo de Ricardo*); interpretearen egoaren azterketa moduko bat, azken batean, haren nahien eta segurtasun faltena, eta "Closcaren" eszenografiak ezin hobe laburbiltzen du oso gutxirekin: ia meztituta dagoen tronu bat (George Martinen Burdinazko Tronua bezala), antzerkiaren tramoiak (hau da, arlo eszenikoaren barrenak) osatua. Ikuskizun honek gazte belaunaldiko talenturik bikainenetako bihurtzen du Bartzelonako eszenografoa.



Luis Crespo | *LA MORT I LA DONZELLA*

Con una trayectoria abrumadora fuera de nuestras fronteras que incluye trabajos en Vancouver, Chicago, Reino Unido o los Países Bajos y el Premio Broadway World, Luis Crespo también ha formado parte como escenógrafo de la compañía valenciana de danza contemporánea Titoyaya y ha mantenido una constante relación con las instituciones culturales valencianas. En *La Mort i la Donzella* sitúa un austero muro como principal elemento escénico para simbolizar el tránsito entre los dos mundos en el que se debate la protagonista. La vida y la muerte, abriéndose camino la una a la otra.

Gure mugetatik at egundoko ibilbidea egina du Luis Crespok. Lanak eginak ditu Vancouverren, Chicagon, Erresuma Batuan eta Herbehereetan, eta Broadway World saria irabazia. Horretaz gain, dantza garaikidean diharduen Valentziako Titoyaya konpainiako eszenografo ere izana da, eta etengabeko harremana izan du Valentzian kultur arloan diharduten instituzioekin. *La Mort i la Donzella* obran horma sotil bat da elementu eszeniko nagusia, eta protagonista bi munduen artean dagoela sinbolizatzen du. Bizitza eta heriotza, bidea irekiz bata besteari.

MEJOR LABOR DE PRODUCCIÓN
PRODUKZIO LANIK ONENA

Elena Carrascal | *LOS CUERPOS CELESTES*

De la fructífera relación entre la Compañía Marco Vargas & Chloé Brûlé y Elena Carrascal SLU nace la producción de *LOS CUERPOS CELESTES. Partitura coral en siete movimientos*, abriéndose a colaboraciones con otros artistas en escena como Miguel Marín, Yinka Esi Graves, Gero Domínguez y Melisa Calero; tras la escena, la gestión de un gran equipo en el espacio escénico, música, vestuario, iluminación y sonido para componer un tablero universal que juega con la riqueza de contrastes entre el flamenco y la electrónica.

Marco Vargas & Chloé Brûlé Konpainiaren eta Elena Carrascal SLUren arteko harreman emankorretik *LOS CUERPOS CELESTES. Partitura coral en siete movimientos* lana sortu da. Eszenako beste artista batzuekin lankidetzan eginda dago, besteak beste, Miguel Marín, Yinka Esi Graves, Gero Domínguez eta Melisa Calero; eszenaren ostean, berriz, talde handi baten kudeaketa espazio eszenikoan, musikan, jantzietan, argiztapenean eta soinuan, flamenkoaren eta elektronikaren arteko kontrasteen aberastasunarekin jokatzen duen taula unibertsala osatzeko.



Nueve de Nueve Teatro | *CON LO BIEN QUE ESTÁBAMOS (FERRETERÍA ESTEBAN)*

En Nueve de Nueve Teatro, compañía aragonesa fundada en 2010 y conformada actualmente por los actores, actrices, directores/as y dramaturgos/as Carmen Barrantes, Laura Gómez-Lacueva y Jorge Usón, no son ajenos ni a los espectáculos musicales (en los que están especializados) ni a montajes arriesgados, como demuestra la vertiginosa y brillante *Con lo bien que estábamos (Ferretería Esteban)*, que ya ha sido distinguido por "El Cultural" de El Mundo como el mejor espectáculo teatral de 2020.

Nueve de Nueve Teatro konpainia, Aragoin eratua 2010ean, honako aktore, zuzendari eta dramagile hauek osatzen dute: Carmen Barrantes, Laura Gómez-Lacueva eta Jorge Usón. Ez zaizkie arrotzak musika ikuskizunak (aitzitik, haietan espezializatuta daude), ezta muntatze arriskutsuak ere; hala erakusten dute beren *Con lo bien que estábamos (Ferretería Esteban)* lan arriskutsu eta distiratsuan, zeina dagoeneko saritua izan baita *El Mundo*-ren eskutik "El Cultural" sariarekin, 2020ko antzerki ikuskizunik onenagatik.

TeatroLAB Madrid | *GROSS INDECENCY (GRAVE INDECENCIA)*

Obra enorme en ambición y dimensiones, *Gross Indecency* adapta la obra original de 1995 *Gross Indencency: The Three Trials of Oscar Wilde* de Moisés Kauffman. Una tragedia legal sobre el escarnio que retiró a Oscar Wilde de la vida pública construida a modo de teatro documental con los autos de los juicios, cartas, entrevistas, extractos del propio Wilde y otros testimonios. Y levantada esta vez con agilidad vertiginosa, con un montaje que incluye proyecciones y un fuego cruzado de líneas mientras un conjunto de *flight cases* rotan y cambian de formación para construir la escenografía.

Obra handinahitsua da *Gross Indencency* bai gogoz eta bai tamainaz; Moisés Kaufmanen *Gross Indencency: The Three Trials of Oscar Wilde* obraren egokitzapena da. Justizia arloko tragedia bat da, non ikusten baita zergatik erretiratu zen Oscar Wilde bizitza publikotik; antzerki dokumentalaren formatuan egina dago, auzibide agiriekin, gutunekin, elkarrizketekin, Wilderen beraren azalpenekin eta beste lekukotasun batzuekin. Oraingo honetan arintasun izugarriarekin egina dago; proiekzioak eta lerro tiroketak datoz muntaketan, *flight cases* multzo bat errotatzen eta formazioz aldatzen doan bitartean eszenografia eratzeko orduan.

PREMIO MAX AFICIONADO O DE CARÁCTER SOCIAL
AFIZIONATUAREN EDO IZAERA SOZIALEKO MAX SARIA

XXIV PREMIOS max ARTE ESZENIKOAK

TEATRO ESTUDIO SAN SEBASTIÁN

Teatro Estudio San Sebastián es una compañía de teatro amateur nacida por la iniciativa de unos jóvenes en 1965 en el Barrio del Antiguo de San Sebastián. En la actualidad está compuesta por mujeres y hombres, con un amplio recorrido de edades, y con el objetivo, al que no hemos renunciado al día de hoy, de hacer una aportación al mundo del teatro.

Siempre nos ha preocupado la selección de textos dramáticos porque creemos que debemos llevar a nuestros espectadores las obras, independiente de su duración (breves o no), de aquellos autores que se esfuerzan en servir a su sociedad y que también hoy es la nuestra.

Nos gusta integrar Artes.

Actuamos en cualquier sitio, incluidos aquellos espacios donde otros no pueden llegar o, incluso, no quieren llegar. Pensamos que la Cultura tiene que estar al alcance de todo el mundo.

Nos basta una sonrisa. La tuya.

Teatro Estudio San Sebastián, Donostiako Antigua auzoan gazte batzuen ekimenez 1965ean sortutako antzerki konpainia amateur bat da. Gaur egun, adin tarte zabala duten emakumez eta gizonez osatuta dago, orain arte uko egin ez diogun helburuarekin, antzerkiari ekarpena egitea.

Beti kezkatu izan gaitu testu dramatikoak hautatzeak, uste dugulako gure ikus-entzuleengana, gaur gurea ere baden euren gizarteari zerbitzua ematen saiatzen diren egileen lanak eraman behar ditugula, haien iraupena (laburrak ala ez) edozein dela ere.

Arteak integratzea gustatzen zaigu.

Edozein lekutan jarduten dugu, beste batzuek iritsi ezin diren edo, are gehiago, iritsi nahi ez duten lekuetan ere bai. Kulturak mundu guztiaren eskura egon behar duela uste dugu.

Nahikoa dugu irribarre bat. Zurea.

Foto ARIZMENDI ARGAZKIAK

MEJOR ESPECTÁCULO DE CALLE
KALE IKUSKIZUNIK ONENA

GLUBS | Nacho Vilar Producciones y Producciones Yllana

Yllana Teatro y Nacho Vilar Producciones se unen para crear *Glubs*, un espectáculo de teatro de calle itinerante en clave cómica inspirado en el espectáculo de 1993 *Glub, Glub* que no solo está impregnado del humor sin palabras, visual y de ritmo trepidante (característico de ambas compañías), sino que además propone la inmersión espontánea con espectadores durante un recorrido itinerante.

Yllana Teatro eta Nacho Vilar Producciones batu egin dira *Glubs* sortzeko, kaleko antzerki ikuskizun ibiltari bat, izaera komikoa duena eta 1993ko *Glub, Glub* ikuskizunean inspiratua, zeina ez baitago bakarrik hitzik gabeko umore bisualez eta (bi konpainien ezaugarri den) erritmo bizkorrez zipriztindua. Izan ere, horretaz gainera, ikusleekin bat-bateko murgiltzea ere proposatzen du oinezko ibilbide batean zehar.



PSIKE | Markeliñe

Este arriesgado espectáculo de calle nocturno propone un opresivo viaje por la mente del artista para abordar cuestiones como el ego personal o la necesidad de aceptación que todos tendemos a demostrar en nuestro contacto con los otros. Las voces interiores se desatan en un descenso incontrolable y vertiginoso a los infiernos de la personalidad en el que lo onírico se impone a lo racional y que busca exponer nuestras vulnerabilidades y los recovecos de nuestro mundo inconsciente.

Gaueko kale ikuskizun ausart honek artistaren garunean barrena egindako bidaia itogarri bat proposatzen du zenbait gairi heltzeko, hala nola ego pertsonala eta guztiok besteekin kontaktuan gaudenean erakutsi ohi dugun onarpen beharra. Barne ahotsak askatu egiten dira nortasunaren infernuetarantz doan jausialdi kontrolgabe eta zorabiagarri batean, non alderdi onirikoa gailentzen baitzaio alderdi arrazionalari eta non gure zaurgarritasunak azalaraztea bilatzen baitu gure inkontzientearen munduko zokondoekin batera.

Foto ONEKA TIRADO

SYMFEUNY | Deabru Beltzak

Un espectáculo sorprendente que fomenta el encuentro y la interacción con el público, *Symfeuny* supone una confrontación simbólica entre el grupo de enérgicos percusionistas y este con el objetivo sublime de resultar transformador, no ya para el espectador, sino también para el entorno urbano en el que se desenvuelve, la calle.

Publikoaren topaketa eta interakzioa sustatzen duen ikuskizun harrigarria da *Symfeuny*. Sinbolikoki, aurrez aurre jartzen dira perkusionista bizkorren taldea eta publikoa, eraldatzailea izatearen helburu bikainarekin, ez jada ikuslearentzat baizik eta baita hura dagoen ingurune urbanoarentzat ere, hau da, kalearentzat.

MEJOR ESPECTÁCULO REVELACIÓN
ERREBELAZIO IKUSKIZUNIK ONENA

ANTOINE | beon. Entertainment

Antoine cuenta la increíble historia original y jamás contada del creador de *El Principito*, Antoine de Saint-Exupéry. Un piloto aventurero que recreaba sus experiencias escribiendo y que en el preciosista montaje de Ignasi Vidal está interpretado por Javier Godina, que se desdobla con Shuarma, de la banda alternativa Elefantes, en la piel del joven príncipe de la ficción. *Antoine* enseña cómo la obra icónica del autor refleja su compleja humanidad dentro de una profunda autobiografía poética.

Antoine lanean, historia original bat kontatzen dute, Antoine de Saint-Exupéryren *Printze txikia*-z orain arte inoiz kontatu ez dutena. Pilotu abenturazale bat, bere bizipenak idatziz kontatzen dituena, Ignasi Vidalek modu preziosistan muntatua eta Javier Godinak interpretatua, zeina Shuarmarekin (Elefanteen banda alternatiboarekin) desdoblatu egiten baita, fikziozko printze gaztearen larruan. *Antoine-k* erakusten du egilearen lan ikonikoak bere konplexutasun humanoa islatzen duela autobiografia poetiko sakon bat eginez.

CHICAS Y CHICOS | El Sol de York

Lucía Miranda dirige a una implacable Antonia Paso en este monólogo en crudo de Dennis Kelly sobre una mujer que podría ser cualquiera, enfrentada a un mundo hostil que la doblega mientras vive una normalidad latente y conciliadora. Madre, esposa, ha experimentado las pequeñas victorias y derrotas de ser mujer hasta que todo cambia para ella, en un movimiento que reflexiona sobre la maternidad, los techos de cristal y los roles de género en la sociedad.

Lucía Mirandak Antonia Paso zorrotza zuzentzen du Dennis Kellyren monologo gordin honetan; edozein emakumeren gorabehera izan zitekeen, mundu zital batek nola makurrarazten duen itxurazko normaltasun baketsu batean. Ama eta emazte izanik, emakumea izatearen garaipentxoak eta porrotak ikusten ditu guztia aldatzen den arte, noiz eta gogoeta bat abiatzen duenean amatasunaz, gizartean dauden kristalezko sabaiez eta genero rolez.

LOS REMEDIOS | La_Compañía exlímite

Fernando Delgado-Hierro y Pablo Chaves brillan en este espectáculo de auto-ficción tragicómica. Ambos dramaturgos se interpretan a sí mismos en un viaje experiencial hacia el barrio en el que crecieron, Los Remedios de Sevilla. Aunque huyeron de una sociedad acomodada, conservadora y católica hacia horizontes más adecuados para ellos, regresan a sus orígenes para descubrir que es imposible escapar de la sangre, de la genealogía y que todo lo que vivimos, de un modo u otro, nos condiciona.

Fernando Delgado-Hierrok eta Pablo Chavesek distira egiten dute auto-fikziozkoa den ikuskizun tragikomiko honetan. Biak dramagileak elkarren interpretazioa egiten dute beren sorlekura doazela (Sevillako Los Remediosera) bizipenez beteriko bidaia batean. Gizarte eroso, kontserbadore eta katoliko batetik berentzako egokiagoak ziren helmugetara alde egin bazuten ere, sorburura itzuliko dira, eta ikusiko dute ezinezkoa dela odolari edo genealogiari ihes egitea eta bizi izandako guztiak baldintzatzen gaituela modu batera edo bestera.

ARRIAGA ANTZOKIAREN EKOIZPEN BERRIA
NUEVA PRODUCCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

ESTREINALDIA-ESTRENO
OTSAILA 2022 FEBRERO

ERRESUMA KINGDOM REINO

WILLIAM SHAKESPEARE-REN TRAGEDIA HISTORIKOAK
TRAGEDIAS HISTÓRICAS DE WILLIAM SHAKESPEARE

ZUZENDARIA - DIRECTOR:
CALIXTO BIEITO

EUSKARAZKO TESTUEN EGOKITZAPEN POETIKOA
ADAPTACIÓN POÉTICA TEXTOS VERSIÓN EUSKERA:
BERNARDO ATXAGA

Bilbao

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

LA VIDA EMPIEZA HOY | Teaser films

Tonet Ferrer dirige este musical que nos recuerda que siempre hay salida si nos apoyamos en el candor de una madre. La música y la familia construyen en *La vida empieza hoy* un cántico a la vida y a las nuevas oportunidades, que siempre nos brindan nuevas fuentes de inspiración. Un homenaje a nuestras madres, aquellas que se convirtieron en nuestras primeras admiradoras y también en nuestro principal soporte, que nos ayudan a levantarnos cuando no vemos la luz.

Una banda en directo acompaña al texto de Tonet Ferrer y las magistrales actuaciones de Aitor Caballer y Pepa Chamorro. Además, cuenta con la participación audiovisual de Loles León, Miguel Rellán, Sergio Caballero y Marga Sánchez, entre otros, y con la colaboración musical de grupos como Sidonie o Christina Rosenvigne. Un auténtico aplauso a la música, a la vida y a empezar de nuevo que ha cautivado los corazones de los espectadores.

Tonet Ferrerrek zuzentzen duen musikalak, ama baten xalotasunean oinarrituz gero beti dagoela irteera bat gogorarazten digu. Musikak eta familiak, beti ere inspirazio iturri berriak eskaintzen dizkiguten bizitzari eta aukera berriei egindako kantu bat eraikitzen dute *La vida empieza hoy* lanean. Omenaldi bat gure lehen miresle eta gure euskarri nagusi bihurtu ziren, eta argia ikusten ez dugunean altxatzen laguntzen diguten, gure amei.

Zuzeneko talde bat Tonet Ferrerren testuarekin eta Aitor Caballer eta Pepa Chamorroren antzezpen bikainekin. Gainera, Loles León, Miguel Rellán, Sergio Caballero eta Marga Sánchezek hartuko dute parte, besteak beste, Sidonie eta Christina Rosenvigne taldeen laguntzarekin. Ikus-entzuleen bihotzak liluratu dituen txalo zintzoa musikari, bizitzari eta berriro hasteari.

«Si deseamos proteger la cultura, debemos continuar creándola»

Johan Huizinga

EULEN Cultura

gestión integral de espacios culturales

Especializados en servicios de gestión, atención específica, soporte técnico y organización de actividades culturales en teatros, auditorios, centros culturales y museos.

www.eulen.com

GRUPO EULEN

MEJOR INTÉRPRETE MASCULINO DE DANZA
DANTZA ARLOKO GIZONEZKO INTERPRETERIK ONENA



Foto marcosGpunto

Daniel Abreu | *EL HIJO*

El coreógrafo y bailarín Daniel Abreu, Premio Nacional de Danza en 2014 y triple ganador en los Premios Max de 2018 con su espectáculo *La desnudez*, ofrece en *El hijo*, su nuevo espectáculo, una aproximación simbólica y poética al desarrollo del ser humano en la naturaleza, la descendencia, los orígenes y cómo las influencias externas nos van conformando. Con su coreografía, el tinerfeño nos sitúa ante imágenes con una fuerte carga expresiva, que reflejan la experiencia de ser vástago, el entusiasmo, y cómo avanza nuestra personalidad en función de los ciclos vitales.

Daniel Abreuk, koreografoa eta dantzaria bera, Espainiako Dantzako Saria irabazi zuen 2014an, eta hiru aldiz Max sariak 2018an *La desnudez* ikuskizunarekin. *El hijo* izeneko ikuskizun berri hau, berriz, hurbilketa sinboliko bat da gizakia naturan nola garatu den, haren ondoretza eta jatorriak, eta kanpoko eraginak nola doazen pixkanaka gu eratzen. Bere koreografiarekin, tenerifetarrak adierazpide handiko irudiak erakusten dizkigu, oinordeko izatearen esperientzia, gogo berotasuna eta nola doan egituratzen gure nortasuna bizitzako zikloen arabera.

Iván Villar | *LEIRA*

Docente y bailarín, Iván Villar representa uno de los mayores exponentes de la danza tradicional gallega y de la reinterpretación del folclore gallego, facetas que alcanzan su máxima expresión en *Leira*. Un espectáculo casi ritual que se asienta sobre la misma tierra de labranza y la atmósfera de la Galicia mágica en el que Villar consigue cargar con el peso expresivo, con la violencia de lo físico y con la pulsión de lo terrestre a través de su cuerpo, que sirve también como instrumento de percusión en los momentos climáticos.

Irakaslea eta dantzaria da Iván Villar, eta Galiziako dantza tradizionalaren erakusgarririk behinenetako bat, hango fokloreaz egiten duen berrinterpretazioagatik, zeina *Leira* obran ikusten baita inon baino hobeto. Galiziako nekazari lurren atmosfera magikoan oinarritzen den eta ia erituzkotzat jo daitekeen ikuskizun honetan, Villarrek lortzen du adierazkortasunaren pisua ematea, fisikoaren bortizkeriarena, lurraren munduarena gorputzaren bitartez, zeina halaber perkusio gisa baliatuko baitu une klimatikoetan.

Foto TOMÁS MURUAGA

Jesús Carmona | *EL SALTO*

El bailarín-bailaor Jesús Carmona es uno de nuestros mayores representantes en la danza a nivel internacional. Fue primer bailarín del Ballet Nacional para marchar hacia su propia compañía, con ya casi diez años de recorrido, y ya tiene en su haber dos Premios Lukas, el Premio Ojo Crítico de Danza, el Premio Nacional de Danza y un Benois de la Danse. *El salto* le muestra más participativo y coral, dejando espacio a sus bailarines mientras reflexiona sobre los valores y estándares de la nueva masculinidad y se desnuda poco a poco hasta su clímax personal por alegrías.

Jesús Carmona dantzari eta flamenko dantzaria da gure ordezkaririk handienetako bat nazioartean. Espainiako Balleteko lehen dantzaria izan zen, eta ondoren konpainia propioa sortu zuen, zeinak dagoeneko ia hamar urteko ibilia egin baitu; ibili horretan, dagoeneko bi Lukas sari irabazia da, Dantzako Begi Kritikoa saria, Espainiako Dantzako Saria eta Benois de la Danse bat. *El salto* lanean, partaidetzaren alderdia landu du gehiago. Bere dantzariei leku ematen die, eta gogoeta egiten du maskulinitate berriaren balioez eta estandarrez; hala, biluztuz doa pixkanaka pozen bidez klimax pertsonalera iristen den arte.

MEJOR INTÉRPRETE FEMENINA DE DANZA
DANTZA ARLOKO EMAKUMEZKO INTERPRETERIK ONENA



Iratxe Ansa | *AL DESNUDO*

Premio Nacional de Danza en 2020, la trayectoria de Iratxe Ansa pasa por el Basel Ballet, la Compañía Nacional de Danza de Nacho Duato, el Ballet de la Ópera de Lyon o el Nederlands Dance Theatre, además de por coreografías para William Forsythe, Wayne McGregor, Bruno Listopad o Nanine Linning. *Al desnudo* es su nuevo trabajo al frente de la compañía que lidera junto a Igor Bacovich, Metamorphosis Dance, y resume parte del universo creativo que la coreógrafa vasca defiende en la danza contemporánea.

Espainiako Dantzako Saria irabazi zuen Iratxe Ansak 2020an. Bere ibilbidean konpainia batean baino gehiagotan aritua da; besteak beste, Basel Ballet, Nacho Duatoren Dantza Konpainia Nazionala, Lyongo Operaren Balleta eta Nederlands Dance Theatre. Horrez gain, William Forsythe, Wayne McGregor, Bruno Listopad eta Nanine Linning koreografoekin lan egina da. *Al desnudo* da haren lanik berriena, Igor Bacovichekin batera daraman konpainian, Metamorphosis Dance-n. Euskal koreografoak dantza garaikidean defendatzen duen unibertso kreatiboaren zati bat laburbiltzen du obra horrek.



Foto JOSEP GUINDO

Lucía Lacarra Gurruchaga | *FORDLANDIA*

"Bailarina de la década" en la World Ballet Stars de San Petersburgo, Premio Nacional de Danza, Premio Nijinsky y Premio Benois de la Danse, la guipuzcoana Lucía Lacarra, muy vinculada a la compañía Víctor Ullate (de la que ha sido directora entre 2018 y 2020), representa una de las figuras más internacionales de nuestra danza. *Fordlandia* es su primer espectáculo como productora, un homenaje al cine con música de Jóhann Jóhansson y Chopin en el que comparte focos con el bailarín y coreógrafo canadiense Matthew Golding.

"Hamarraldiko dantzaria" izendatua dute Lucia Lakarra San Petersburgoko World Ballet Starsen, eta hainbat sari irabazi ditu, hala nola Espainiako Dantzako Saria, Nijinski saria eta Benois de la Danse saria. Gipuzkoarra oso lotua dago Víctor Ullate konpainiara (horko zuzendari izana da 2018tik 2020ra), eta gure dantzaren nazioarteko figurarik handienetako bat da. *Fordlandia* lehen ikuskizuna du ekoizle gisa; zinemari omen egiten dio bertan, Jóhann Jóhanssonen eta Chopinen musikarekin, eta berekin batera dantzatzen da Matthew Golding dantzari eta koreografo kanadarra.

Melania Olcina | *DOSIS DE PARAÍSO*

Melania Olcina es una de las figuras de la danza con más proyección de la capital. Parte fundamental de la compañía de Sharon Fridman desde 2013 (con quienes ya triunfó en los Max de 2015 con *Free fall*), forma pareja artística con Antonio Ruz y ha trabajado con Alfredo Sanzol, LaMOV o la Compañía Nacional de Danza. En *Dosis de Paraíso*, el nuevo espectáculo de Sharon Fridman, acarrea con la vorágine sensitiva que componen las luces, la música y la vibración del espectáculo en una coreografía enérgica y humanizada que trata de buscar en las nuevas tecnologías espacios emocionales.

Melania Olcina da hiriburuan proiekziorik handiena duen dantzarietako bat. Funtsezkoa da Sharon Fridmanen konpainian 2013tik (zeinarekin dagoeneko Max saria irabazia baita *Free fall* lanarengatik). Haren bikotekide artisktikoa Antonio Ruz da, eta lan egina da Alfredo Sanzolekin, LaMOVekin eta Dantza Konpainia Nazionalarekin. *Dosis de paraíso* lanean, Sharon Fridmanen ikuskizun berriak zurrunbilo sentsitibo bat dakar argiekin, musikarekin eta ikuskizunaren zirrararekin. Koreografia bizkor eta gizakoi horretan, espazio emozionalak bilatzen saiatzen da teknologia berrietan.

MEJOR ACTOR
GIZONEZKO AKTOREREN ONENA



Daniel Grao | *LA MÁQUINA DE TURING*

Con una trayectoria de fondo que incluye más de una treintena de trabajos para la pequeña pantalla y otro tanto entre películas, cortometrajes y obras de teatro, el actor de Sabadell Daniel Grao ofrece en *La máquina de Turing*, bajo la dirección de Claudio Tolcachir, una de sus mejores actuaciones con un retrato brillante y entrañable del excéntrico genio matemático británico Alan Turing, leve tartamudeo incluido.

Hogeita hamar lan baino gehiagoko ibilbide loratsua du Daniel Graok pantaila txikian, eta beste hainbeste lan ditu filmak, film laburrak eta antzezlanak kontatuta. Claudio Tolcachir zuzendari duela, Sabadellgo aktoreak bere interpretaziorik onenetako bat egin du *La máquina de Turing* lanean; Alan Turing britainiar matematikari buruargi eta bitxiaren erretratu bikaina bezain hunkigarria, hitz totel eta guzti.

Foto BÁRBARA SÁNCHEZ PALOMERO

Francesco Carril | *EL BAR QUE SE TRAGÓ A TODOS LOS ESPAÑOLES*

Especializado en teatro clásico y formado en Madrid, Bélgica, Canadá y EEUU, Francesco Carril colabora con la compañía danesa Odin Teatret y tiene su propia compañía, Teatro Saraband (con quienes ha estrenado en Madrid, Londres y Roma), además de dilatada experiencia en la Compañía Nacional de Teatro Clásico y la docencia universitaria. En *El bar que se tragó a todos los españoles* interpreta a Jorge Arizmendi, un cura navarro que, en 1963, con 33 años, decide cambiar de vida, dejar el sacerdocio y viajar a Estados Unidos para aprender inglés y marketing.

Antzerki klasikoan espezializatua dago Francesco Carril, eta hainbat lekutan trebatua da, hala nola Madrilen, Belgikan, Kanadan eta AEBetan. Danimarkako Odin Teatret konpainiarekin dihardu, eta konpainia propioa ere badu, Teatro Saraband (zeinekin Madrilen, Londresen eta Erroman aritua baita); horretaz gain, eskarmentu luzea du Antzerki Klasikoaren Espainiako Konpainian eta unibertsitatean irakaskuntzan. *El bar que se tragó a todos los españoles* lanean, Jorge Arizmendirena egiten du, nafar apaiz bat, 1963an (33 urterekin) bizitza aldatzea erabakitzen duena: apaizgoa utzi, eta Estatu Batuetara joango da ingelesa eta marketina ikastera.

Joan Carreras | *HISTÒRIA D'UN SENGLAR (O ALGUNA COSA DE RICARD)*

Formado en el Institut del Teatre de la Diputació de Barcelona y habitual en las aventuras escénicas de Àlex Rigola, Julio Manrique o Ariel García Valdés, Joan Carreras brilla en esta libre interpretación de la historia de Ricardo III con un despampanante monólogo en el que combina velocidad con reflexión, sorna y rabia con intimidad, resentimiento, envidia, orgullo e inseguridad en la piel de un actor segundón al que le llega su gran oportunidad interpretando al mítico personaje de Shakespeare.

Bartzelonako Diputazioko Institut de Teatren trebatua da Joan Carreras, eta ohikoa da Àlex Rigolaren, Julio Manriqueren eta Ariel García Valdésen abentura eszenikoetan. Richard III-ren historiaren interpretazio libre honetan, distira egiten du monologo txundigarri batekin, nola eta gogoeta, burlaizea eta amorrua konbinatuta intimitatearekin, erresuminarekin, inbidiarekin, urguiluarekin eta segurtasun faltarekin; bigarren mailako aktorearena egiten du, non bere aukera handia iritsiko zaion Shakespeareren pertsonaia mitikoa interpretatzeko.

MEJOR ACTRIZ
EMAKUMEZKO AKTORERIK ONENA



Carolina Yuste | *PROSTITUCIÓN*

Desinhibida, potente, femenina. Así se muestra la joven de Badajoz en *Prostitución*, su primer gran papel tras alzarse con el Goya a Mejor Actriz de Reparto en 2019 por su sentida espontaneidad en *Carmen y Lola*. Con un enorme dominio escénico entre dos colosos como Carmen Machi y Natalie Poza, Carolina Yuste consigue sobresalir por su credibilidad, más allá del dramatismo y del humor, confirmándose como una de las realidades que más brilla en la constelación de nuestros intérpretes.

Desinhibitua, indartsua eta femeninoa. Horrela agertzen da Badajozkoa *Prostitución* obran, bere lehenengo lan handia, bigarren mailako aktorerik onenaren Goya irabazi zuenetik 2019an *Carmen y Lola* obran erakutsitako espontaneotasun sentituagatik. Carmen Machi eta Natalie Poza bezalako bi erraldoiren artean trebetasun handia erakusten du Carolina Yustek, eta lortzen du nabarmentzea pertsonaiari ematen dion sinesgarritasunagatik, ez bakarrik dramatismoagatik eta umoreagatik. Hala, gure interpreteetatik distira handiena egiten duenetako bat da jada.

Foto VANESSA RABADE

Fernanda Orazi | *LOS DÍAS FELICES*

La actriz y directora argentina Fernanda Orazi despliega de la mano de Pablo Messiez (que hila fino en la dirección del "anticlásico" de Beckett) sus mejores virtudes, que pueden resumirse en una implacable versatilidad a la hora de enfrentarse a un texto casi cuántico en interpretaciones, alegórico en expresión y en acción, plagado de acotaciones y de verborrea e histriónico pasando de la carcajada a la desolación. Todo un *tour de force* para una actriz en plenitud que puede, enterrada hasta el cuello, correr su propia maratón.

Fernanda Orazi aktore eta zuzendari argentinarrak bere bertuterik onenak erakusten ditu Pablo Messiezen eskutik (zeinak lan fina egin baitzuen Becketten "antiklasikoa" zuzenduz). Labur esanda, egokitzeko gaitasun itzela erakusten du testu ia kuantikoa interpretatzeko orduan; alegoriko ageri da adierazkortasunean eta ekintzan, hitz gehigarri ugari eta jario izugarria azalduz eta istrioniko ere bai barre algaratik negarrera igaroz. Bete-beteko *tour de force* bat bere gorenean dagoen aktore batentzat, zeinek leporaino lurperatua egonik ere maratoi propioa egin dezakeen.

Foto FERNADO PRATS

Mireia Aixalà | *LES TRES GERMANES*

